

noaua

Helduen danborradan
izena emateko garaia da

San Ixidro eguna
eta Sagardo Eguna, iruditan

Aginagan, Gau Beltza

Pausoka elkartea

Behar bereziren bat duten

haurren eta beren familien zerbitzura

Lehenengo 6
erosleentzako,
garaje bikoitza
banakako
prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 €^{tik}

12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi_n

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN



VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1^o Behea
20009 Donostia

E.:contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



OGI BERRI
ARTISAU OKINAK

**ETA ORAIN...
IKUSI FUTBOL
PARTIDUAK
GUREKIN!**



egunero 06:00tik 21:00ra (asteburutan ere)
PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)



antenas
Telemar

1969. urtetik gipuzkoarrei zerbitzua ematen.
Telekomunikabideetan goi mailako teknikariak.



elkano kalea 13 HERNANI

Tlfnoa. 943 55 33 99
info@antenas telemar.com



Albisteak iruditan

Txabola berri bat Zubietako Eskola Txikian



Aurreko larunbatean aritu ziren ikasleak, gurasoak eta irakasleak elkarlanean.

J oan den larunbatean, maiatzak 17, Zubietako Eskola Txikian guraso, ikasle eta irakasleak elkartu ziren elkarlanean argazkiko txabola eraikitzeko.

"Urtean zehar, Maushaus Donostiako arkitek-

tura taldearekin, elkarlanean aritu dira *Arkitektura eta adimen kolektiboa* proiektuaren inguruan", aditzera eman digutenek. "Proiektu honen azken xedea txabola eraikitzea zenez, haurrek gurasoei egin zieten gonbitea, txabola egitera etortzeko.

Lanean, baina giro onean

Eskolako komunitateaz gain, herri batzarreko kideak, Maushausekoak eta zenbait herritar bertaratu ziren txabola eraikitzea. Elkarlanean, animoz eta giro onean pasa zuten goiza.

Laburrean

Ekainaren 14an, 1964koen kinto bazkaria

Ekainaren 14an, larunbatez, bilduko dira aurten 50 urte betetzen dituzten usurbildarrak. Kinto bazkarirako izen ematea zabaldu dute.

Apuntatu asmo duzuenok, deitu bi telefono zenbaki hauetako batera, arratsaldez, 18:00-22:00 artean: 667 055 553 (Julen) edo 655 715 084 (Rosa).

Kirmen Uriberen azken nobela, Sutegin aztergai

Sutegi udal liburutegiak antolatuta, hilaren 29an, 19:00etatik aurrera liburutegian bertan, Pako Aristirekin. 16 urtetik gorakoei zuzenduriko ekitaldira bertaratzeko gonbita luzatzen dute. Kirmen Uriberen "Mussche" lana komentatzeko tartea hartuko da. Liburu honen aleak liburutegian eskuratu daitezke.

"Makrobiotikara hurbilketa" saioa, Baratzen

Larunbatean, maiatzak 24, 11:00etatik 13:00etara, elikadura energetiko eta makrobiotikora hurbiltzeko aukera Baratze dendan.

Oinarritzko errezeta elikagarriak ikasi eta partekatzeko aukera. "Errezetaren bat ezagutzen baduzu, etorri Baratzerara", luzatu dute gonbita.

noaqua

Kultur Elkarteak

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 /// elkarte@noaqua.com /// www.noaqua.com

Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Bea Alda,

publizitatea@noaqua.com.

Diseinu berria: Erroitiz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaqua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,

Aizpea Aizpurua.

Banaketa: Olatz Rezola, Arantxa

Zulaika.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietak, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,

Jon Etxabe, Alazne Begiristain,

Denis Elortza, Pello Aranburu,

Xabier Aranburu, Inma Balda,

Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,

Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia

Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Maialen Unanue

Zu izango zara hurrengoa?

Nazka nazka eginda nago nahierarako adierazpen askatasuna maite dutenekin. Apirilaren amaieran, hogeita bat lagunena aurkako sarekada egin zuten, horietatik hamabost Euskal Herrian, baina atxilotuak egon ziren baita Galizian, Katalunian eta Espainian ere. Zer, eta sare sozialetan "terrorismoa goratzea" leporatzen zieten, besteak beste. Segituan utzi zituzten aske, baina tak, badaezpada, to sarekada. Badaezpada belarritik tirako dizut, ea minaren minaz konturatzen zaren zer bai eta zer ezin duzun esan.

Hor ikusi genituen Guardia Zibila bideo batean, sare sozialetatik "konfiskatutako materiala" erakusten ordenagailu batean. Tartean, ikurriña bat. Ikurriña bat! Zertan ari

gara? Zer behar dauka Guardia Zibila sare sozialetan halako mezuak bilatzen ibiltzeko? Ez dute zeregin hoberik? Imajinatzen ditut Twitterreko bilatzailean "eta", "matar" eta antzeko hitzak bilatzen. Absurdoa da. Eta txistea dirudi, baina ez da hain barregarria aste batzuk pasa eta lehenengo atxilotuaren berri duzunean. Espainian (zehazki Leonen) politikari bat hil ostean, ez dakit zeinen txanda zela esan zuen gazte batek. Gustu txarrekoa dela? Oso. Baina, delitua? Faborez.

Euskal Herrian Twitterren ibiltzen denak bai edo bai ezagutuko du txiolandiako Sabino Arana. Alde guztietakoak egurtzen ditu, maisuki gainera, eta tarteka (oso maiz, gehiegi batzuetan) beste erabiltzaile batzuen mezuak bidaltzen ditu. Hitz gutxi-

tan zaila da adieraztea zer nolakoak bidaltzen dituen! Heriotza "mehtuak", euskaldunen eta kataluniarren aurkako gorroto mezuak... Enfin. Ezjakintasunez, harrokeriaz eta tonkeriaz betetako mezuak guztiak. Muturreko eskuindarrak, frankismoko banderak, argazkiak nazien agurra eginez... Klik bakar bat egin gabe ere pantailak agertzen dira. Nik dakidala, baina, ez dute inor atxilotu iberiar penintsulako iparraldearen aurkako apologia egiteagatik (galziarrak, euskaldunak eta katalanak, nolabait, zaku berean sartzeagatik). Eta ez, ez dut esan nahi behin atxilotzen hasita, alde guztietakoak atxilotu beharko lituzketenik, baizik eta hemen terrorismoaren apologia zer den eta ez den (aspaldi ikasia dugu) trikornioaren puntan jartzen

zaienaren arabera neurtzen dutela.

Ez dit batere graziarik egiten kontuak. Ze horren atzean "guztia ikusten duen begia" dago. Eta esajeratu naizela esan, ez dela hainbeste-rako. Baina abisua emana dute: zuk zer esango adi daude. Argi izan behar duzu hemen ezin dela edozer esan: beraiek nahi ez dutena, ez behintzat. Eta horrek, bai edo bai, autokontrola dakar, beldurra dakar. Itsu, mutu, gorizatera. "Ez dut mobidatan sartu nahi" jarrera hartzera. Eta nazka nazka eginda nago, pertsonen ideiak eta iritziak kontrolatu nahi dituztenekin. Hain da absurdoa, hain da etsigarria. Horren aurka protesta egitea erabakitzen baduzu, aurrera, baina kontuz zer esaten duzun, hurrengoa zu izan zaitezke eta.

Maialen Unanue | Luis Aranalde | Idoia Torregerai | Aritz Gorriti | Imanol Ubeda | Joxe Piñas | Nerea Zinkunegi

Ika-mika

Gazteok, ziztada Europar Batasunari

Ukazina da, Europar Batasuna ideal kapitalista inperialistaren arabera sortutako makinaria dela. Herri eta herritarren, gazte, langile, ikasle eta emakumeon interesetik at, gutxi batzuen aberastasuna handitu eta bermatzeko tresneria ekonomiko, politikoa eta militarra da hain zuzen. Borreroak bezala, Europar Batasunak ere baiez-tapen hau islatzen duten milaka aurpegi ditu, izan NATOren sorreran eta garapenean, herrien (Euskal Herrian kasu) eskubideen zapalke-tan edota Troikaren bitartez inposatutako murrizketetan. Hori da Euro-

par Batasunaren logika eta hor ez dago herri zapalduontzako tokirik.

Zentzu horretan, egungo Kapitalaren Europarekiko eta Estatu zapaltzaileen Europarekiko haustura da guk planteatzen duguna, Europar Batasunaren desagerpenaz hautsiko baita bakarrik bere izana. Hori dela eta, hauteskundeetan parte hartzeko deia luzatzen badugu ere, argi esan nahi dugu gure aukera herrien Europa dela, herrietan eta herritarretan oinarritutako den eredia hain zuzen ere. Izan ere, europar herrietako beste sektore iraultzaileekin aliantzak gara-

tzera goaz, kapitalaren, Troikaren eta Estatuaren Europari erakutsiz badela herritarren eta herrien beste Europa bat.

Herrien Europa eraikitze bidean baina baditugu zereginak eta horri begira hauteskunde hauetan euskal langileria, klase zapalduaren, herritarren eta gazteon aldarrikapenak bertan izatea bermatuko dugu; kalean ditugun borrokek bertan oihartzuna izatea da gure nahia. Hau da, Euskal Herrian gatazkaren konponbideari begira irekitako prozesu demokratikoari zein herri sektore zapalduen interesei

erantzunez egunez egun eraikitzen ari garen prozesu sozialari ekarpena egin behar diogu hauteskunde hauetan parte hartuz.

Horregatik, maiatzaren 25ean ospatuko diren hauteskundeak gure borrokan sakontzeko beste urrats gisa ulertuta, bozka bidez parte hartzeko deia luzatu nahi diogu gazteriarri, gure helburuak betetzeko hautu gisa EHBilduren hautagaitza babestuz. Jar dezagun Europar Batasunaren izana kolokan. Gazteok, ziztada Europar Batasunari!

Usurbilgo Ernai

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero.

Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia.

Hurrengo alea: maiatzak 30. Idatzia ekartzeko azken eguna: maiatzak 26 (eguerdiko 11:00ak).

Maiatzaren 27an hasiko da helduen danborradan izena emateko epea



Maiatzaren 27an asteartea, 20:00etan hasiko da izen-ematea Agerialden.

Entseguak maiatzaren 27tik aurrera hasiko dira, astearte eta ostegunetan, 20:00-21:00 artean Agerialden. Helduen danborradan parte hartzeko izena eman behar da eta maiatzaren 27an hasiko da inskripzioa. Helduen danborrada, Santixabel bezperan ospatuko da aurten, uztailaren 1ean. Afalurretik eta afalondoren.

Jaietako txupinazoa

Santixabeletako txupinazoa nork jaurtiko duen erabakitze aukera dugu. Jai Batzordetik proposamenak egitera animatu nahi dute jendea. Iradokizunik duzuenok, bidali kultura@usurbil.net

helbidera, edo Sutegi udal liburutegian eta Potxoenean jarriak dauden postontzietan utzi. Maiatzaren 30a arte dago epea.

Ekainaren 2an, jai batzordearen bilera

Ekainaren 2ko jai batzordean aztertuko dira proposamen guztiak eta bertan hartuko da azken erabakia. Arratsaldeko 18:00etan, Potxoenean egingo duen bilkuran.

Deialdi irekia da hau, edonork parte har dezake. "Animatu beraz, aurtengo Santixabel jaietako txupinazoa nork bota lezakeen proposatzerik!", luzatu dute gonbita Jai Batzordetik.

Alokairu sozialeko etxebizitzaren zozketa

Ostegun honetan, maiatzaren 22an, eguerdiko 13:00etan Usurbilgo Udaleko udalbatza aretoan zozketatuko dira, Txaramunto 2-ko alokairu sozialeko etxebizitzak.

Lapurreta banketxean

Bi pertsona sartu ziren Usurbilgo BBVA banketxean maiatzaren 15ean. Bietako batek eskopeta laburtua soinean, lapurreta burutu zuten, eguerdiko 14:00ak aldera, Udaltzaingotik NOAUA!ri berri eman diotenez. Eskura zuten dirua ematera behartu zituzten bankuko langileak eta ospa egin zuten gero. Ertzaintza eta Udaltzaingoa lapurreta lekura bertaratu ziren.

Abiadura mugatzeko koxkak, Santuenean

lbigailuentzat itxita egon zen Santueneko zubia maiatzaren 14an. Abiadura mugatzeko koxkak jarri behar zituzten udal langileek. Aurreko asteazkenean bideratu zituzten lanak.



Maiatzaren 14an ipini ziren zubian.

Elkarlanerako hitzarmena sinatu dute Elhuyar Fundazioak eta Udalak

Hizkuntza normalizazio eta zientziaren eta teknologiaren gizarteratzearen aldeko lanen esparruan elkarlana bideratzea da, aurreko astean Usurbilgo Udalak eta Elhuyar Fundazioak sinaturiko hitzarmenaren xedea. Bi urtetarako sinatu duten akordio honen baitan, Udalak 10.000 euroko dirulaguntza emango dio, Osinalde industriagunearan kokatzen den fundazioari.

2014ra begira, Elhuyarrek jasotako laguntza,

"honako arloetan erabilteza aurrekusten da: parte hartze prozesuetan aholkularitza lanetarako eta itzulpen-zerbitzuetarako". Usurbilgo udalak urteko ekarpenaren %30a Elhuyarrek eskaintzen dituen zerbitzuen truke erabiliko ditu.

Elhuyar Fundazioak, zientzia eta teknologiaren esparruan dibulgazio eta berrikuntza-jarduerak sustatzen ditu eta euskararen garapen osoaren bidean, aholkularitza, dibulgazio eta ikerketak egiten ditu.



Udalak 10.000 euroko dirulaguntza emango dio

Elhuyar Fundazioari.

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

Errazkin S.L.
igeltseritza orokorra
943 24 01 76 eta
649 435 470
errazkinsl@euskalnet.net
Oztaran auzoa 33, URNIETA

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE NAQUISIA 10- atzekoaldea
943 372 795

Pausoka, behar bereziak dituzten haurren eta familien beharrak asetzen

Behar bereziak dituzten haur eta familiak laguntzea, informazioa edota orientabidea ematea, finean, dituzten beharrak asetzea, horixe da Hernanin egoitza izan, baina udalerrian bertan, eskualdean eta Buruntzaldetik haratagoko 40 familiei zerbitzua ematen dien Pausoka Elkartearen egitekoa. Bilgunea ezagutzera ematen ari dira eskualde mailan. Baita Usurbilen ere. Elkarte kideetako batekin hitz egin dugu, Aimarren amarekin.



Orain dela bi urte hasi ziren Pausoka elkarte osatzen. Gaur egun 40 familiei zerbitzua ematen die.

Zuena, behar bereziak dituzten haur eta senideak laguntzeko elkarte gisa definitu liteke?

Maiteder Requejo Castro: Behar bereziak orokorrean; bai fisikoak, kognitiboak, portarari loturikoak... Dauden guztiak, hiperaktibitatea, autismoa, garun paralisiak, epilepsia, sindrome arraroak, dislalia... Gure helburua beti da umeen onura. Eta umeen onuraren ondorioz, familien onura dator.

Zuen elkartera lehen aldiz doana, umeen eta bere inguruko beharrak aztertzen dira ezta?

Hori da elkartearen eginbeharra. Hasteko, elkartera datoren ume bakoitza baloratzen dute hemen ditugun profesionalak, esparru guztietatik eta doan. Gero gurasoekin biltzen

PAUSOKA

Behar bereziak dituzten umeen aldeko elkarte da Pausoka. "Gure helburua beti da umeen onura. Eta umeen onuraren ondorioz, familien onura dator"

dira profesionalak, emaitzen berri emateko, baita orientabidea eskaintzeko ere. Familia, ere elkartearen lana. Beraiekin hitz egiten dugu, informatu zer egiten dugun, nola doan elkarte, noiz egiten ditugun bilerak. Gainera, familia bakoitzak elkartera zer aportatu dezakeen jakitea gustatzen zaigu.

Egoera hauetan, zaintzailea ere zaindu beharra dago?

Oso garrantzitsua bai. Supo-

satzen da halako egoera bat bizitzea tokatu zaizula eta egoera nola kudeatu jakin beharra duzula. Baina hori ez da horrela izaten. Gure asmoa psikologo bat ekartzea da, ez bakarrik umeon gurasoak tratatzeko, umeon anai-arrebak ere hor daude. Beraiek ederki daude, ikusten dute zer familia egoera duten, ikusten dute familia horretan zein den beharrak dituen, eta beharrak asetzen zaizkiola, eta bera lagundu beharrean aurkitzen da. Baina bere beharrak ere oso garrantzitsuak dira eta horiekin ere lan egin behar da.

Behar berezi batetik sortzen da Pausoka?

Duela bi urte izan zen. Donostian zegoen errehabilitazio zentro bat itxi eta zerbitzu gabe geratu ginen. Zerbi-

tzu honekin ez da hobetzen geure umeen egoera, baina mantentzen da. Umeongan garrantzitsuena, atzeraka ez joatea da. Gaitz hauek hori dute, degeneratiboak direla fisikoki. Errehabilitazioa kenduta, degenerazioa handitzen doa. Egoera honetan ginela, Garberako gestorea ezagutzen nuen. Esan zidan elkartzeko baginen, Garberak duen dirulaguntza elkarteentzako bideratu zezaketela. Elkarte, elkarteari forma eman eta Pausoka sortu zen. Hasi ginen fisio eta terapeuta okupazional banarekin. Etxez etxe hasi ziren, euren materialarekin. Ikusten genuen geroz eta gehiago ginela eta garraioekin denbora galtzen zutela. Baziren denbora faltagatik, tratatu ezin zituzten umeak. Udaltxe desberdinekin hitz egin genuen, Hernaniko Udalak garrantzitsua ikusi zuen egoera hau eta lokal hau laga zizun. Hasiera batean itxaron gela eta fisioaren gela laga zizun.

Harremanetarako

Helbidea: Etxeberri, 9-Behea, 20120 Hernani.
Telefono zenbakia: 666 839 993.
Web orrialdea:
www.pausokaelkartea.org
www.facebook.com/pausokaelkartea.gurasoelkartea
Laguntza emateko kontu zenbakia: 2095 5006 32 1064260044

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

TXAPELDUN
TABERNA
razioak
ogitartekoak
plater konbinatuak...
Muna lurra 2, 943 11 82 53

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78
20170
USURBIL

“Pausokara bazatoz, ulertua izango zara, ez zara bakarrik sentituko”



“Administratziotik ez dituzte beharrok asetzen, orain aitzakia handiena da ez dagoela dirurik”.

NOAUA! Elkartera datorrenak, zer aurkituko du?

Une honetan, bi fisio gela ditugu, logopedia eta bi terapeuta okupazionalako gela. Gela berria eman digute, erdibanatu behar dugu, bulego antzeko bat egiteko psikologo edo neuropsikologo batentzat. Eta beste aldea bigarren terapeuta batentzat. Lokal hauek ez dute gehiagarako ematen.

Egoitza txiki geratzen ari zai-zue?

12 familia hasi ginen. Orain momentuz 40 familia gara. Buruntzaldekoak gehienak, baina baita Orereta, Orio, Hondarribia, Donostiakoak. Harremanetan izan gara Bilbo edota Nafarroako familiekin ere, han ez baitute ezer. Guk ez dugu alor honetako elkarrekin bakarria izan nahi ordea, ezin dugu denera ailegatu. Kolektibo honek di-tuen beharrak asetuta egotea nahi dugu. Edozein lekutan. Administratziotik ez dituzte beharrok asetzen, orain aitzakia handiena da ez dagoela dirurik.

Sentsibilizazio falta dago errealitatean aurrean?

Gauzak asko aldatzen ari dira.

PAUSOKA

“12 familia hasi ginen. Orain momentuz 40 familia gara. Buruntzaldekoak gehienak”

Dependentzia laguntzak kentzen ari dira. Erabaki hau hartu aurretik, ez dira etorri elkarrekin edo familietara galdetzeraz behar ditugun, nola baliatzen dugun dependentziagatik jasotzen dugun laguntza. Administratziotik aldetik jarrera ez da asko aldatu. Gizarte aldetik bai, hedabideak lan handia egiten ari dira. Halere argi dugu, hau guztia gure lana da. 2015ean proiektu berri bat lantzen has-tekoak gara; gure umeentzako aisialdia. Errehabilitazioa egin behar da, baina umeak dira eta ondo pasa behar dute. Umeon aisialdia herriko gainerako umeekin partekatzea, hori da guk lortu nahi duguna.

Bide bat da baita, zuen erre- litate plaza ateratzeko?

Ikusgarri egiteko eta hezteko. Gizarte hezi behar da, umeek

tatik hasita. Irakaslea naiz. Gurasoek normaltasun batean ikusten ez dutena, umeek ikusten dute. Umeek hezten dituzte gurasoak. Gurasoek dituzte aurreritziak, ez umeek. Umeek elkarrekin jolasean dabiltzanean, ez dute arazorik izaten. Arazoa da gurasoek zer helaraten dieten umei, Gure umeek beste umei erakutsi, eta beste umeek bere familiei erakutsi, nire ustez hor dago gakoa.

Laguntza biltzeko elkartasun ekimenak antolatu izan dituzue, ezta?

Plastikozko tapoiak biltzen hasi ginen, gero kamisetak saltzen, postuak jartzen herrietako jaietan, Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin eginitako egutegiak egin ditugu bi urtez. Oso ondo saldu dira. Orain esku artean dugun proiektua, Pausoka Eguna egingo dugula Hernanin, egun osoko jaialdi bat. Esparru desberdinetara jotzen ari gara; ikastetxeetara, elkarrekin... Ikasleen eskulanean postua, txaranga, tailer egokituak, lasterketa herrikoia, Pirritx eta Porrotxen emanaldia, bazkari herrikoia... izango dugu.

“Hemen gaude, haur eta familiak laguntzeko”

Behar bereziren bat duen haurren familia horiei, zer aholkatu diezaiekezu?

Etorri konpromisorik gabe. Elkarrekin ikusi, gurekin hitz egin, familiak bakarrik etorri nahi badute ere bai. Badira umeak ekartzen ez dituzten familiak. Onura egiten die.

Bigarren iritzi bat jasotzea aholkatuko nieke. Beste alternatiba bat bada, gu hemen gaude, haur eta familiak laguntzeko. Gure beste helburuetako bat informazioa zabal-tzea da; bai elkarrekin ingurukoa, edota dauden tratamenduei buruzkoa. Kanpotik profesionalak ekarri izan ditugu hitzaldiak ematera, hitzarmenak ditugu ortopedia sektorearekin... Materiala merkeago lortzeko aukera dugu.

Zertan aldatzen da haur eta famil- lion egoera Pausokan hasten diren unetik?

Askotan gure umeen balorazioak beti ezkontasunetik doaz, ez dutela hau edo beste egiten diote. Pausokan beti saiatzen gara alde positibotik baloratzen, umeek zer egiten duen, hortik aurrera zer egin behar den... Beraiekelkartera datozen unetik irribarrean ikusten dira, dena da oso positiboa. Umea baloratzen duten artean, gurasoekin kafetxea hartzen dugu. Kafe bat hartu nahi duzu nirekin? Esan izan didate. Guk baietz noski, eta negar egin behar badugu negar egingo dugula, edo barre egin, serio jarri... Baina arazorik gabe hitz egingo dugula, gure artean ulertzen baikara. Ez dago dena azaldu beharrik, oso hitz gutxiarekin elkar ulertzen gara. Gure elkarrizketak ez dira bizi dugun egoera nola daramagun azaltzea, soberan baitakigu. Hona bazatoz, ulertua sentitzen zara, ez zara bakarrik sentitzen. Familia askoren kasuan sentitzen den bakardade sentimendu hori, hemen guztiz hausten da. WhatsApp talde bat ere badugu. Gozagarria, gure artean hartuemane-tan jartzeko.

Hondakinak sortu ahala ordaintzeko sistema berria

Hondakinen kudeaketan, usurbildarrak berriz ere aitzindari. Atez ateko bilketa sistemak bost urte bete berri dituen honetan, zero zabor norabiderantz pauso berri bat ematera doa Usurbilgo Udala. Orain arte poligonoetan aplikatzen zen sortzez besteko ordaintzeko sistema etxebizitzetan ere indarrean jarriko dute laster. Erreusaren bilketari eragingo dio aldaketa honek. Zehaztasun gehiago lerroetan, ingurumen zinegotzi Jose Maria Rivadeneyraren eskutik.

Zer da sortzez besteko ordaintzea?


Jose Maria Rivadeneyra: Sortzen duzun hondakinaren kopuruaren arabera ordaintzea. Kutsatzen duenak ordaindu dezala, printzipio hori aplikatzea. Ez da gauza berria gure herrian, ezta inguruan ere. Usurbilen eta Mankomunitate osoko enpresei hondakin bilketagatiko sistema hau aplikatzen zaie. Oraingo urratsa hori etxeetara zabaltzea izango da.

Ordaindu beharko den hondakin tasa bitan zatituko da?

Orain arte ordaindu dugun hondakin-tasa, kopuru finkoa, urtero onartzen dena da. Aurrerantzean tasa horrek bi zati izango ditu; zati finkoa eta aldakorra, sortzen dugunaren arabera. Zati aldakorra hori erreusari bakarrik aplikatuko zaio. Ez diegu aplikatuko beste hondakin zatiei. Erreusa gehiago sortzen duenak, gehiago ordaindu beharko du. Erreusari lotu diegu tasa ekologiko hau. Erreusa da arazoa, tratamendu aldetik garestiena.

Nola neurtuko da tasa hau?

Erreusa zenbat aldiz ateratzen den erregistratu, eta horren arabera kalkulatu da. Enpresetan hala egiten da. Sortzez besteko sistemetan bi aldaera nagusi daude; bolumenarengatik edo pisuarengatik ordaintzea. Pisu bidezko sistemekin ez dago oso esperientzia onik. Aurrerantzean, kubo erdia edo guztiz beteta egon, berdin ordainduko da. Honek ere badu eragin positiboa, ontzia beteta dagoenean ateratzeko joera nagusituko da eta horrek zerbitzuaren kostua jaitea suposatuko du. Bilketa eraginkortuko du.



Jose Maria Rivadeneyra, Ingurumen zinegotzia.

SORTZEZ BESTE ORDAINTZEA

Usurbilen eta Mankomunitate osoko enpresei hondakin bilketagatiko sistema hau aplikatzen zaie. Oraingo urratsa hori etxeetara zabaltzea izango da"

Erabaki honen atzean bada hondakinak murriztea sustatzeko nahia?

Sortzez besteko sistemaren atzean dauden ideia bultzatzaileak bi dira; tasa ekologikoa, gauzak ondo egiten dituen saritzea, baina gero ere murrizketa bultzatzea. Beste urrats bat zero zabor filosofian. Bilketa aldetik hobekuntza ez da izango ikusgarria, ez dago hobetzeko tarte handirik. Usurbildarrek oso ondo egiten dute lana. Arduratsuak dira, ingurumenarekiko sensibilizatuak daude, hondakin arazoaren jabe dira eta sailkatzen dute. Eta erreus oso gutxi sortzen dute.

Erreusa ontzi gris batean atera beharko da orain, laster banatuko dituzte

Ontzien bidez neurtuko da?

Herritarren egunerokotasunean honek dakarren aldaketa bakarra ontziarena da. Lehen erreusa ateratzen genuen nahi genuen poltsan eta aurrerantzean, banatuko ditugun 10 litroko ontzi grisetan. Ontziak organikorako ditugunak bezalakoak dira, atez ateko bilketa egiten den beste herri askotan, Gipuzkoan ekotzitako halako ontziak erabiltzen dituzte. Txukuntasunean irabaziko dugu, denentzako ontzi estandar hauekin.

Ontzien banaketa nola bideratuko duzue?

Ekaina erdialdera banatuko dira ontziak. Ontziak banatzen diren unetik herritarrek has daitezke erabiltzen, inolako arazorik gabe. Esperientzia positiboa izango den konfiantza dut, gure oinarria usurbildarrak baitira. Usurbildarrek soberan erakutsi dute ingurumenarekiko konpromisoa eta oso gai dira, gauzak txukun egiteko. Honek ez die eskatuko esfortzu handirik, gauzak berdin egiten jarraitzea baizik.

Bilera informatiboak datozen egunetan

Aste hasieran sortzez besteko ordaintzeko sistemari buruzko informazioa jasotzen duten eskuorriak banatuko dira Udala etxeetan. Datozen asteotarako, gai honi buruzko argibideak eman eta zalantzak argitzeko bilerak deitu dituzte:

Maiatzak 29, osteguna

19:00 Sutegin.

Ekainak 3, asteartea

19:00 Aginagan.

Ekainak 4, asteazkena

19:00 Aranen.

Ekainak 5, osteguna

19:00 Santuenean.

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

TXAPELDUN
TABERNA
razioak
ogitartekoak
plater konbinatuak...
Muna lurra 2, 943 11 82 53

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78
20170
USURBIL

San Ixidro, belaunaldi ezberdinetako herritarren bilgune



Arrilla aita-semeak erakustaldia eskaintzen Dema-plazan.

Eguzkia eta jendea, aurtengo San Ixidro Eguneko protagonistak. Belaunaldi ezberdinetako herritarrikusi genituen maiatzaren 15eko goiz partean, Dema plazan ospatu ziren herri kirolletako probei adi-adi jarraitzen. Haur Hezkuntzako ikasle eta irakasleek ere, ikastolatik kanpo, baserri-tarren eguneko ospakizunetan murgilduta igaro zuten goiz partea.

Harri jasotzea, zaldi-dema eta Arrilla aita-seme usurbildarrak Txapartegirekin aurrez aurrez jarri zituen aizkolari desafio proba itzela eskaini zuten Dema plazan. Olaso eta Otamendiren bertso ederrek egin zuten proba eta proba arteko zubi-lana.

Hainbat herritar eta udal ordezkari lanean aritu ziren, hamaiketako goxo askoa bertaratutako en artean banatzen.

Zumarten matrikulatzeko garaia da

Maiatzaren 26tik 30era. Orduetgia: goizez (astelehena ezik), 11:00etatik 13:00etara eta arratsalde, 16:30etatik 19:30etara. 2014-15 ikasturterako ikasgai eskaintza zabala, 4 urte-tik gorakoentzat: Musika-Txokoa, musika mintzaira, helduentzako musika mintzaira, tronpeta, saxofoia, biolina, biola, perkusioa, klarineta, abesbatza, teknika bokala, esku-soinua, trikitixa, panderoa, pianoa, txistua, gitarrara, flauta, organoa, talde instrumentalak.

Behar balitz, zozketa

Epe barruko izen emateak baino ez dira onartuko, bestela plaza galduko da. Musika txokoa, musika mintzaira eta instrumentuko ikasle berrien kasuan, eskaintako plaza kopurua baino eskaera gehiago egongo balitz, matrikulazio epea amaitu osteko ostegunean, 19:00etan zozketa egingo da. Zozketa ostean itxaron zerrenda egingo da. Bajarik egongo balitz, itxaron zerrendako ikasleak sartuko lirakeke. Zozketatik, plaza gabe geratzen diren ikasleei matrikulako dirua itzuliko zaie. Argibide gehiago: zumarte.org, Kale Nagusia 45ean, edo 943 371594 (arratsaldez).

ERABAKITZEKO ESKUBIDEARI

BAI

EMAN BOTOA ehbildu herrikerabaki

Mundu bat, Sagardo Egunean



Hasteko, dantza saio ikusgarria

Eneko Balerdi eta Eneko Gil dantzarien saioarekin hasi zen Usurbilgo Sagardo Eguna. Eguerdiko 11:30ak izango ziren frontoiko oholtza gainera igo zirenean. Jende gutxi zuten aurrean, baina dantzan hasi ahala, ikusleen arreta bereganatzen hasi ziren. Sagardoaren prozesua oinarri harturik, eta txalapartaren erritmoan, dantza saio ikusgarria osatu zuten. Bideo honetan jaso genuen dantza saioa, osorik.



Eneko Balerdi eta Eneko Gil dantzariekin hasi zen Sagardo Eguna.

Eguzki betean

Aspaldiko partez, eguzkitan ospatu zen Sagardo Eguna. Eskubaloi partidak tartekoziurrenenik, kosta egin zitzaion jendeari frontoira eta Dema plazara hurbiltzea. Eguerdiko 13:30ak aldera hasi zen jendea erruz batzen. Askatasuna plazan ere sagardoa banatzen denetik, erronda askoz erosoagoa da. Eta hiru sagardo gunen nagusietan, Askatasuna plazan, Dema plazan eta frontoian, sagardoak aise gozatzeko aukera egon zen.



Askatasuna plazan ere banatzen denetik, frontoia lasaia dago.

Etixeraten kalejira, eta topa

Orain arte, elkarretaratzeko egin izan ditu Etxeratek. Mikel Laboa plazan bateratu ohi ziren. Aurten, ordea, kalejira txiki baten ondoren, presoan aldeko topa egin dute. Mikel Laboa plazan zegoen txosna gunetik abiatu eta kalejira txiki bat egin zuten. "Sagardo Egunean ere gurekin nahi ditugu" zioen pankarta batek. Askatasuna plazara jo zuten eta bertan egin zuten euskal presoan aldeko topa.



Askatasuna plazan egin zuten presoan aldeko topa.

Zuriko Latailladeren poza

Botatzaile lehiaketa aldatu egin da aurtengo edizioan. Oholtzara jendea deitu ordez, sagardo postuetan barrena ibili ziren epaimahaikideak. Guztien artean, hiru botatzaile hauen lana nabarmendu nahi izan zuten. Zuriko Lataillade izan zen lehen saria eskuratu zuena, Amaia Olasagasti bigarren geratu zen eta Iñaki Agirresarobe "Tola" hirugarren. Beste urte batzuetarako, egoki izan daitekeen formula, ezbaierik gabe.



Erdian hiru sarituak eta alboetan, epaimahaikideak.

Larunbat honetan Urdaira sagardotegian sagardo dastaketa, bertsolariak girotua

Goizeko 10:30ean hasiko da. Aurreko larunbatekoak afari kutsua izan bazuen, honakoa hamaiketakoaren tankeran egingo da. 10:30ak aldera hasiko da, baina ez upeltegian, baizik eta sagastietan. Urdairak bere sagastiko sagar ugari baliatzen du sagardoa egiteko eta Xabier Kamio enologoak gidatuko duen dastaketa, hain zuzen, Urdairaren sagastian hasiko da.

Sagastietan hasi eta upeltegian amaituko da beraz, larunbat honetako dastaketa. Egongo da zizka-mizkarik eta noski, sagardoa izango da dastagai. Kupel batekoa zein beste-



Argazkia: Jakoba Errekondo

Aurreko larunbatean lagun ugari batu ziren Saizar sagardotegian. Horietako batzuk ageri dira argazkian, Fernando Vadilloren azalpenei adi.

koa. Eta Urdairako bisita girotzen bi bertsolari ezagun arituko dira: Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze.

Unai Agirre Sagardogileen Elkarteko kide da. Pozarren da II. Sagastiak Loretan zikloak orain arte eman duenare-

kin. "Oso inportantea da sagardoaren inguruan aktibitatea sortzea. Sagastietatik hasita. Gainera ekitaldi hauetan jendea ondo pasatzen ari da, eta hori oso inportantea da sagardoaren kultura sustatzeko garaian".

MAIATZAK 24, LARUNBATA

- 10:30 Sagardo dastatze gidatua Urdaira sagardotegian.
- Xabier Kamio enologoa, Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze bertsolariekin.
- Izen-ematea: Urdaira sagardotegian (943 372 691). Edo NOAUA! Kultur Elkartean (943 360 321).
- 5 euro, plaza mugatuak.

Sartu www.noaua.com helbidean eta ezagutu gure webgune berria!

Albistegia, agenda, sare sozialak, merkatu txikia, komunitatea, agurrak, eguraldia, aldizkaria online, hemeroteka... guztion eskura!



noaua

PiRritx, Porrotx eta MaRiMotots

SARRERAK SALGAI

Urnieta: Kantoi, Amailur
Andoain: Aiurri, Ernaitza
Hernani: Ametsa



Maiatzak 28, asteazkena
17:30. 7 euro
Egape ikastola • Urnieta

BIZIPOZA

Bozkatzeko mahai bat gutxiago, igande honetako hauteskundeetan

DISTRITOA	SEKZIOA	MAHAIA	ABIZENAK	HAUTESLEKUA
01	001	A	A-I	Udarregi Ikastola (Gernika ibilbidea, 11)
01	001	B	J-Z	Udarregi Ikastola (Gernika ibilbidea, 11)
01	002	A	A-Z	Auzo Elkarte (Santuenea auzoa, 12)
01	002	B	A-Z	Herri Ikastetxea (Erriberako kalea, 7)
01	003	A	A-Z	Haur Eskola (Kalezar auzoa)
01	003	B	A-Z	Lanbide Eskola (Zubieta auzoa, 9)
01	004	U	A-Z	Udarregi Ikastola (Gernika ibilbidea, 11)

Igande honetan, maiatzaren 25ean ospatuko dira Europako Parlamentua osatzeko hauteskundeak. Usurbilen zazpi mahai izango dira, aurreko deial-

dietan baino bat gutxiago. Kalezarren hautesmahai bat gutxiago ipiniko dute. Goizeko 9:00etatik 20:00etara irekiko dira hauteslekuak.

Badator Zubietako Kultur Astea

Maiatzak 28, asteazkena

Kultur astearen irekiera.

17:00etan: Puzgarriak eta marrazki erakusketa Kaxkapen. Ondoren: Buruhandiak.

Maiatzak 29, osteguna

17:00etan: "Ez dago mugarik kirola egiteko", Aitor Puertas kirolariaren hitzaldia ume eta gurasoentzat Kaxkapen.

18:00etan: Txokolatada eta buruhandiak.

Ondoren: Apar festa eta ur-gerra denontzat, gurasoak barne (prestatu pistolak eta globoak).

Maiatzak 30, larunbata

17:00etan: Musika eta antzerki emanaldia frontoian (Ikasturte amaierako ekitaldia).

Ondoren: Aulki joko, globo apurketa eta eskulanak ume eta gurasoentzat.

19:30etan: Afari-merienda eta Disko Festa.

(Kultur asteari amaiera emateko, aurrekaldean dagoen bertsoa, denon artean abestuko degu).



Puzgarriak ipiniko dituzte lehen egunean.

Oharra: Eskolako kortxoan afarirako janaria ekartzeko zerranda jarrita dago. Animatu mesedez!

Aginagako Udako Txokoetan izena emateko epea ireki da

Aginagako eskola txikiko guraso elkarteak hasi da udako txokoa antolatzen. Hauek izango dira datak: ekainaren 23tik 30era eta uztaileko bi hamabostaldiak.

■ Ordua: Sarrera ordua 9:00-10:00 eta irteera ordua 13:00.

■ Umeen adina: 4-12 urte.

■ Prezioa: ume kopuruaren arabera zehaztuko da. Izena emateko: 637332402 (Naia-ra). Ekainak 4, izen emateko azken eguna.

Ikastola Eguna Udarregin

Maiatzak 26, astelehena

16:30 LH 5 eta LH 6 mailetako ikasleen bertso jaialdia, Udarregi Ikastolako erdiko aretoan.

Maiatzak 28, asteazkena

18:30 HH5 eta LH5 mailetako ikasleen kantagintza saioa, Sutegiko auditorioan.

Maiatzak 30, ostirala

22:00 "Ondoko hilibiko tipoa" antzezlan Suteegin. Sarrerak: 5 euro, egunean bertan salgai. Antolatzailea: Hitz Aho.

Ekainak 1, igandea: Ikastola Eguna

Hurrengo NOAUA!n, xehetasun gehiago.

Uretako sorospen ikastaroa, DYaren eskutik

Ekainaren 7an hasi eta 29ra bitartean, larunbat eta igande guztietan izango da. Larunbatetan, goizeko 09:00etatik 13:00era eta arratsaldeko 15:00etatik 19:00etara eta igandetan, goizeko 09:00etatik 13:00era. Ikastaroa Usurbilgo Oiarde kiroldegian (Gernika ibilbidea, 9) eta DYako Ordezkaritzan (Munallurra, 26) izango da.

Izena emateko edo jarduera honen inguruko informazio gehiago jasotzeko, deitu 943 46 46 22 telefono zenbakira.

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak....

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax. 943300045


ARRANDEGIA PELLO

PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

Josue Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. © 943 362 725

Munduko herriak, denboraldiko azken Tipi-Tapan

Ekimen arrakastatsuko bigarren denboraldia errematatzeke ohiko formatua berriitu nahi izan dute tabernariak. Orain arte, garaiko produktuekin prestatzen zituzten hilabeteko lehen igandeetako pintxoak. Ikasturteko azken edizioan, ekainaren 1ekoan, munduko herrialde desberdinei gorazarre egingo dieten zizka-mizka bereziak dastatu ahal izango ditugu, Txapeldun, Artzabal, Xarma, Bordatxo, Txirristra, Aitzaga eta Txiriboga tabernetan. Argentina edota Sahara aldekoak adibidez. Edariarekin batera, 2 euroren truke. Denboraldiko 150 euroko erosketa-balearen azken zozketa egingo da ekainaren 1ean bertan, 15:00etan Txiribogan.



Ekainaren 1eko Tipi-Tapan, munduko herrialde ezberdinetako zizka-mizkak dastagai izango dira.

Ostiral honetan, giza-katea eta kalejira, erabakitze eskubidearen alde

Gerturazten ari den ekainaren 8ko hitzordua girotzeko, giza-kate herrikoia antolatu du Usurbilgo Gure Esku Dago taldeak, ostiral honetarako, maiatzaren 23rako. Hasteko, bilera informatiboa deitu dute 19:00etan Sutegin. Bertan emango dute asteotarako nobedade baten berri. Usurbildar, aginagar eta zubietarrek Uhartre-Arakilen izango dute ekainaren 8an, erabakitze eskubidearen aldeko giza-katean parte hartzeko tartea. Sakanara joateko autobus zerbitzua izango da Usurbildik. Gure Esku Dago-tik berri eman dutenez, ostiral honetan bertan irekiko dute autobusetan izen emateko epea.

Bilera, giza-katea eta jan-edana

Sutegiko bilera informatiboaren ostean, ostiral honetan arratsaldeko 19:00etan, giza-kate kalejira antolatu dute. "Ahal duzuenok agertu zaitezte. Gainera, bileraren ostean, "giza kate kalejira" egin nahi dugu herrian zehar, eta horren ostean jateko eta edateko zer edo zer izango dugu prest. Beraz, anima zaitezte!", luzatu dute gonbita.

Informazio gehiago:

usurbilgureeskudago@gmail.com
gureeskudago.net

Mezuriko bira egingo dute asteburu honetan Andatza Mendi Taldekoek

Maiatzak 25, igandea: Mezuriko bira

Abiatzeko hitzordua: 8:00h, Oiardo Kiroldegitik. Joan etorria: autobusez. Ibilbidea: 3 ordukoa, 13,5 kilometro. Izen ematea: maiatzaren 21a baino lehen. Prezioa: 8 euro bazkideek eta langabetuek. 10 euro, gainerakoek. Ordainketak: 2095 5069 07 1068489805.

Oharra: plazak mugatuak izango dira. Lehentasuna Andatza MKTkoek izango dute.

Ekainak 1, igandea: Arlaban-Araotz

Abiatzeko hitzordua: 7:00etan, Oiardo Kiroldegitik. Ibilbidea: ia 6 ordukoa, 22 kilometro. "Arlabandik Araotzera bideratuko gara. Andarto (1.076 m) mendira igotzeko aukera izango dugu". Izen ematea: maiatzaren 28a baino lehen. Prezioa: 12 euro Andatzako bazkideek eta langabetuek. 15 euro, gainerakoek. Ordainketak: 2095 5069 07 1068489805.

Oharra: plazak mugatuak izango dira. Lehentasuna Andatza MKTkoek izango dute.

Informazio gehiago: andatzamendizale.info
Antolatzailea: Andatza Mendizaleen Kirol Taldea.

Jardunaldiak, Arrain Migrazioaren Munduko Egunaren harira

Maiatzaren 24an ospatuko den nazioarteko eguna, arrain migratzaileak eta bere beharrik hobetzeko garrantziak jabetzeko ospatzen da. Egun honekin bat egin eta jardunaldiak antolatu ditu Usurbilen maiatzaren 21etik 24ra, Azti-Tecnaliak, URA Uraren Euskal Agentzia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Usurbilgo Udala eta Ekolurrekin batera:

Maiatzak 23, ostirala

18:30- 18:50: Aingiraren bidaia sinestezi-na. Estibaliz Diaz eta Aizkorri Aranburu (AZTI-Tecnalia).

18:50- 19:30: Mahai-ingurua: Angula eta Oria: maitasun istorio zaharra.

Tokia: Potxoenea.

Maiatzak 24, larunbata

Orbeldiko presan, itsasaldiaren mugan dagoen aingira eta izokinentzat arrain pasabideari bisita egingo diogu. Bere funtzionamendua azalduko dugu, aurkitzen ditugun arrainak lagindu eta ur gora askatuko ditugu. Ondoren, frontoira joango gara non arrainen migrazioarekin lotutako umeentzat zuzendutako tailerrak antolatuko baitira: feltro-kisketak, origamia, makillajea eta kolortzea.

"Mussche" nobela, datorren literatura topaketako mintzagaia

Sutegi udal liburutegiak antolatuta, hilaren 29an, 19:00etatik aurrera liburutegian bertan, Pako Aristirekin. 16 urtetik gorakoei zuzenduriko ekitaldira bertaratzeko gonbita luzatzen dute. Kirmen Uriberen "Mussche" lana komentatzeko tartea hartuko da. Liburu honen aleak liburutegian eskuratu daitezke. Eleberrri honen aleak aurrez eskuratu eta irakur ditzakezue. "Anima zaitez parte hartzera, lagun giro eder-rra aurkituko duzu eta!", luzatu dute gonbita liburutegitik.

txirristra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

LATAILLADE

ITURGINTZA

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

Seniorrak, primeran



Usurbil Kirol Elkarteko mutilak mailaz igo dira.

Ametza bete da. Usurbil Kirol Elkarteko bi senior taldeek asteburuko faseetan nagusitu eta mailaz igotzea lortu dute; mutilak 1. nazional mailara eta neskek, Zilarrezko Ohorezko Mailara. Eskubaloi jaialdi handia izan da asteburukoa. Emozioz beterikoa, jendez beteriko harmailak Kiroldegian etxekoei indarra ematen. Sagardo Egun handia izan zen maiatzaren 18koa, Usurbilgo eskubaloientzat. Ederki ospatu zuten.

Senior neskek

Maiatzak 16, ostirala: Usurbil K.E. 26-23 C.D. Tahiche
Maiatzak 17, larunbata:
B.M. Rasoeiro 27-27 Usurbil K.E.
Maiatzak 18, igandea: Usurbil K.E. 24-21 S.D. Lagunak

Senior mutilak

Maiatzak 16 ostirala: Ucin Usurbil 34-24 Puerto del Carmen
Maiatzak 17 larunbata: Base Oviedo 23-22 Ucin Usurbil
Maiatzak 18 igandea: Ucin Aluminio Usurbil 22-22 Poio Artai

Ika-mika, senior mutilen azken partidaren

Igandean jokatu ziren azken partidak. Berdinketarekin bi taldeak igotzen ziren. Eta halaxe amaitu zen partida. Azken segunduen inguruko bideoa bolo-bolo ibili da Interneten, berdinketa eman zeneko ueña jasotzen duena. Usurbilgo atezainak baloia atera, aurkariak baloia hartu eta berdinketa lortzen duen ueña. Hitzartua ote zegoen susmoa zabaldu dute hainbat hedabidek. Hori horrela izan zela frogatu beharko dute, ordea. Eta hori bideo-irudietan behintzat ez da agertzen.



Neskek pozarren, kopa eskuratu berri.

Eskubaloiko errifak

3457 eta 1716 dira, Usurbil Kirol Elkarteak egin duen mariskadaren errifako zenbaki sarituak.

Alebin futbol taldea

Maiatzaren 30ean, 18:30etan Haranen. 2014-2015 denboraldirako alebin taldea osatzeko bilera informatibo hau, Usurbil FT-k antolatu du. "Izen eman nahi duenak, eskola kirolean parte hartu beharko du eta gehienez 16 jokalarari onar daitezke, beraz garrantzitsua izango da bertaratzea", luzatu dute gonbita.

Maiatzak 24, larunbata

10:00 Alebin neskek: Udarregi 5B-Elizatxo A
Udarregi 6B-Langile A
11:30 Beteranoak: Usurbil FT-Zumaiaiko

Gipuzkoako selekzioarekin

Maiatzak 25, igandea

11:15 Kadete nesken entrenamendua, Donostia-ko La Sallen: Usurbilgo Estitxu Berasategi, Ane Irazabal eta Eider Makazaga deitu dituzte.
11:30 Kadete mutilen entrenamendua Urnietan. Usurbil K.E.ko Unai Lejardi deitu dute.
11:30 Infantil mutilen entrenamendua Urnietan. Usurbil K.E.ko Koldo Diaz deitu dute.

Amador Granadosen garaipen berriak

Espainiako Txapelketa jokatu zen aurreko astean eta errepede lasterketan urrezko domina eskuratu zuen txirrindulari usurbildarrak. Erlojuaren aurkako proban hirugarren izan zen. Ciudad Realen jokatu ziren txirrindularitza egozituko probak.



Amador Granados, Ciudad Realeko podiumean.

Pilota partidak

Maiatzak 24 larunbata,
11:00etan Usurbil, Nagusiak
Muguruza-Mitxelena - Urbieta I-Esnaola
Belloso-Biain - Iribar anaiak

Maiatzak 25 igandea,

11:00etan Usurbilen, Nagusiak
Loban-Iraizoz- Quina-Gorrotxategi
Urbieta II-Arruti - Jauregi-Murgiondo

Haurrak zainduko nituzke goizein arratsaldean. Irakaskuntzan diplomatu. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketari. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketari eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein orduetan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsua eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria prestatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularak ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingeneritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldean 6-12 urtetako umei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularak emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Neska gazte esperientziaduna,

heziketa premia bereziak dituzten ikasleei klase partikularak emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularak emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskalduna, haurrak zaindu edota klase partikularak emateko LH-n DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo internan moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. Telefono zenbakia: 609 632 030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke.

650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketari lanetarako. 618 030 296.

Lan eskaintzak

Emakume autonomo bat behar da Usurbilgo elkarte bat garbitzeko. 943 36 27 24 (Hitzordua astelehenean 18:00-20:00)

BESTELAKOAK

Betaurreko batzuk galdu nituen larunbat arratsaldean Erreka-txiki inguruan. Norbaitek aurkitzen baditu deitu 666 050 274 telefonora. Maria Jesus.

Txapel dun jertse berdea galdu genuen ostiralean. Frontoi eta dema plaza artean. Arratsaldeko 7etatik 9ak bitartean. On The Go du aurreko aldean jarrita. Noa-ura ekartzea eskertuko genuke.

Urte eta erdiko ume batentzako, sendo samarra den kotxe silla bat behar dugu. 626 728 463

Kotxe sila bat erosiho litzake urte eta erdiko haur batentzat. Sendo, fuertea izan dadila. 626 728 463.

Mutil gazte bat prest dago, rotabatorearekin lurra biratzeko eta eskuz buelta emateko lurrari. Prezio ekonomikoa. 610 14 19 40 (Aitor).

Oxelo markako patinete bat galdu dut. Beltza eta arrosa. Askatasuna plazan. Aurkitzen duenak Patrira eraman, edo deitu 943 507 230.

Zaldi-terapia egiteko, egokitutako lokal bat, landa eremu bat edo lur-sail bat alokatu nahiko genuke proiektu bat aurrera ateratzeko. Igor Aizpurua. Tel. 606 525 707.

Niki txuri manga luze bat galdu dugu Erreka Txiki inguruan. Katu baten marrazkia eta perlatxoak ditu. Aurkitu baduzu, deitu 943 37 04 03 telefono zenbakira.

Gidari arduratsua bat eskaintzen da etxepribatu baterako. Libre ordu desberdinetan. Tel. 696 264 197.

Josteko makinak salgai. Prezio onean. Tel. 943 36 32 01.

Belar fardoak salgai. 943 36 20 72.

6 hilabeteko Bulldog frantsesa galdu da, txuria orban beltzekin, Txokoalde inguruan. Norbaitek ikusiko balu deitu 637 93 20 58 (Silvia)

Iphone 5 telefono mugikorra galdu nuen Eguberrietan. Topatu badu-

zu, deitu 943 36 11 15 telefonora.

Valentziako mandarina ekologikoa salgai. 1€ kilo. Bitartekariak gabe. Tel. 637 929 093.

Katu beltza eta txuria galdu da herrian, "Txalaka" frutadenda inguruan. Pottolo xamarra dago. Norbaitek aurkitu badu, deitu: 605752 667. Saria emango da.

Baserri edo borda bat nahi genuke alokatu edo alokairuaren bidez erosi. Oiloak, pottokak eta baratza ditugu, beraz hektarea bat gutxienez behar dugu. Miren: 656742048; Alaitz: 658724075

Baserri bat eskaintzen da konpondu eta negozio bat jartzeko Lasarte inguruan. Tel. 626 728 463.

Josteko bi makina salgai. 943363201.

Indukziozko suak salgai. Bi urte ditut eta baldintza onetan dago. 943 361 109.

Zubietan 10.000 m. baino gehiagoko lursail bat alokatuko nuke. 635729637

lotzetan ibiltzeko patinak salgai. 35 - 38 talle, merkeak. 649 482 775.

Ohe altu bat salgai. Mutilena eta koloretsua. Tel. 649 482 775.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera egingo da. 637974994

Hemengo intxaurrea erosiho nuke, deitu 634 409 888

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713204 edo djlarra@usurbil.com

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehene ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Abere-Landare Babeslea	943 376 650
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Taxia (Angel)	607 928 770
Udalzaingoa	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Eusko Tren	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	LurraldeBus	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Anbulategia	943 362 013
Bake Epategia	943 372 336	Oa botika	943 376 076
Udarregi Ikastola	943 361 216	Iturralde botika	943 363 395
Haur Eskola	943 374 061	DYA	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Gurutze Gorria	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Emergentziak	112
Hastapen tailerrak	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta	900 840 111 / 016
KZgunea	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Etumeta AEK Euskaltegia	607 609 379	Banco Popular Español	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	BBVA	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia	943 361 239	Telefonica	1004
NOAUA! Kultur Elkarte	943 360 321	Euskaltel	900 840 840

Goardiako farmaziak maiatzak 22-ekainak 1

Osteguna 22 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte

Ostirala 23 ORUE Jaizkibel 2. Lasarte

Larunbata 24 ACHA-ORBEA Hipodromo etor. 6. Lasarte

Igandea 25 ACHA-ORBEA Hipodromo etor. 6. Lasarte

Astelehena 26 DE MIGUEL Kale Nagusia 32 Lasarte

Astearte 27 RODRIGUEZ K. Nagusia 42 Lasarte

Asteazkena 28 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Osteguna 29 ACHA-ORBEA Hipodromo etor. 6. Lasarte

Ostirala 30 URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

Larunbata 31 URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

Igandea 1 URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ Garikoitz Aldabe. Perkaiztegikalea 8 Hernani. 943 336 022 22:00 - 09:00

Agenda maiatza

23 ostirala

■ **Kalejira.** Gure Esku Dagok deituriko "giza-kate-kalejira". 19:00 Biler informatiboa Sutegin. Ondoren, giza-kate kalejira. Gero, jan edana.

24 larunbata

■ **Sagardo dastatze hamaiketako didaktikoa, Urdaira sagardotegian.** Izen-ematea: Urdairan (943 372 691) eta NOAUA! Kultur Elkartean (943 360 321). 5 euro, eserleku mugatuak.

■ **Gau Beltza.** Su Ta Gar, Izeberg eta Legez Kanpo, 23:00etan Aginagako Eliza Zaharrean.

25 igandea

■ **Mezuriko bira, Andatzakoekin** 8:00etan, Oiar-do Kiroldegitik. Izen ematea: maiatzaren 21a baino lehen.

■ **Europako hauteskundeak: bozketa eguna.** Bozka emateko ordutegia: 9:00-20:00.

Gau Beltza larunbatean Aginagan, Su Ta Gar, Legez Kanpo eta Izeberg taldeekin

Su Ta Gar taldeak "Bizirik gaude" lan berria aurkeztuko du Aginagako Eliza Zaharrean, Izeberg taldekoek estreinako diska eta Legez Kanpo taldeak borobilduko du Gau Beltza. Maiatzaren 24an, gaueko 23:00etatik aurrera.

Aginagan ospatuko den kontzertu gauerako sarrerak, aurrez eskura daitezke 8 eurotan, Aitzagan, Aginagako Arrate Egoitzan, Lasarteko Ilargin eta Orioko Kalakarin.



Gaueko 23:00etan hasiko da kontzertua.

Sagardo dastatze didaktikoa, Urdairan

Guillermo Castaños eta Fernando Vadillo enologoek dastaketetan partehartzeko aukera izan dugu egunotan. Larunbat honetan Xabier Kamioeren txanda izango da. Urdaira sagardotegirako egiten ditu enologo lanak. Larunbat honetan, sagardo dastatzea gidatuko du Urdairan bertan, eguerdi partean, eta Maialen Lujanbio zein Aitor Mendiluze bertsolariak izango ditu bidelagun. Izen ematea: Urdairan (943 372 691) eta NOAUA!n (943 360 321). 5 euro, eserleku mugatuak.



Film proiektzio bikoitza, Usurbilgo Gaztetxean

Igande arratsalde honetan, maiatzaren 25ean, 18:30etatik aurrera Alkartasuna Kooperatibako egoitza ohian. Emanaldirako sarrera doan. Bi film ikusi ahaliko dira ekitaldian; "Ataun Of The Dead" eta "Joxean's Hil Eben". "Katiotsak egindako produkzio xumeak dira, kostu baxukoak baina kalitate handikoak. Umorea, fantasia, frikismoa eta azken bi mendeetako euskal historiako pasarte/pertsonaiei erreferentzia zuzenak...", berri eman dute antolatzaileek.



Datozenak

Bertsoak eta kantauak, Udarregiko ikasleen eskutik

Maiatzaren 26an, bertso saioa

Udarregi ikastolako erdiko aretoan, 16:30. Ahozkotasuna eta Bertsolaritza programaren baitan, bertso jaialdia eskainiko dute LHko 5. eta 6. mailako ikasleek.

Maiatzaren 28an, kantagintza saioa

HH5 eta LH5 mailetako ikasleen kantagintza saioa Sutegin. 18:30etik 19:30era.

Dantza Taldearen liburu aurkezpena

Usurbilek dantzarako tradizio handia izan du aspalditik. Dantza-taldea herriko zein euskal kulturako tradizioaren euskarri garrantzitsua izan da askorentzat, euskal mundura hurbiltzeko atea. Ekarki handi hau eza gutzera emateko urte askotan pilotutako altxor hori bildu eta herritarren esku jarri da liburu batean. Maiatzaren 30ean egingo da liburuaren aurkezpena, 19:30ean Sutegin.

Maiatzaren 31n, Kantu Taldearen jira

Mikel Laboa plazatik abiatuko dira, ohikoa duten legez, arratsaldeko 19:00etan. Gogon izan herritar orok parte har dezakeela.

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
 San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

BORDATXO
 taberna
Pintxo Bereziak
 943 37 10 42
 Zubiaurrenea 5

IOSU
serigrafia

sergiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL

Aldizkariko "Gazi, gozo, geza" atala orain ere noaua.com web orrian



http://www.

Etxebizitzak, garajeak, motorra, lanpostuak, trukean... Zure oharra Internet bidez igo eta kontsulta dezakezu

www.noaua.com

MERKATU TXIKIA

noaua



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

943 36 46 00

www.lhusurbil.com

Erdi eta goi mailako zikloak A eta D Ereduak

Administrazioa eta kudeaketa

Elektrizitate-elektronika

Fabrikazio mekanikoa

Ura eta energia
Produktio zerbitzu eta manten.



Honako honen bila bazabiltza: Kalitatezko irakaskuntza, lanpostu bat topatzeko erraztasuna, enpresa praktikak, atzerrian praktikak, ekipamendurik berriena.

AURREMATRIKULA maiatzaren 27tik ekainaren 6ra



EDERTU ZAITEZ!



Loli Lizarralde
ESTILISTA

ESTETIKA TARIFAK

- Aurpegi garbiketa 30€
- Manikura + esfoliazioa 9€
- Pedikura 15€
- Bekainak edo ezpaingaina 4€
- Besapeak edo ingreak 5€
- Hanka erdiak 12€
- Hanka osoak 16€
- Gorputzeko esfoliazioa eta masajea 28€
- Gelezko azkazalak 40€

Zubiaurrenea, 5B USURBIL 943 361 971



Jwar
ESTETIKA

Zure azala
Kalitate handiko
produktuekin
zaintzen dugu

Natura Bissé
Barcelona
DOUBLE ACTION HYDRO
PROTECTIVE DAY CREAM

munalurra 2, Usurbil 943 571 680



Ane
ILEAPAINDEGIA

Artzabal

JUBILATUENTZAT AUKERA ONENA

artzabal baserria 626603600

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU



WELLA -ren eskutik,
ILLUMINA KOLORAZIOA:
Kolorazio munduan eman
den pauso handienetakoa

- ✓ Ilean, beste edozein
koloraziok baino %70
gehiago islatzen du argia
- ✓ %100 estaltzen duten
koloreak
- ✓ Babes handiagoa duten
kolore naturalagoak

Eta gainera,
AMONIAKORIK GABEKO
kolorazioa ere aukeran!

INTZA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

Egurditan irekia! Nagusia 8, Usurbil 943 36 36 41



Elexpe
ileapaindegia

Betileen tintaketa
eta permanentea

Estetika • Tatuaiak

Zutikako eta etzandako
Solariuma

Muna Lurra 12. ☎ 943 370 462



Berria!

GOLDWELL
ELUMEN

ileapaindegia

mistoa

BIOLOGO BATEK
MIKROSKOPIOZ
EGINDAKO BURU-AZAL
ETA ILEAREN AZTERKETA

KONTSULTA DOAN!

9.00etatik 19.00etara zabalik
Zubiaurrenea 4 • 943 361 951